



25 MAY. 2022 - 13:30h

Kepa Iribarrek norabide beltza eman dio Elkanoren Lehorreratzeari '72 ordu' eleberrian

Kepa Iribarrek Elkanoren Lehorreratzearen jaiari kokatu du bere lehenengo eleberriaren istorioa, Getarian. Festa giroan murgilduta dagoen herri batean heriotza mehatxu batek talde txiki bat «hankaz gora» jarri du eta ikerketa bat abiatu da.



Alaia Sierra



Kepa Iribar, bere lehenengo eleberria eskuan duela. (Andoni CANELLADA | FOKU)

Kepa Iribar kazetariak Getariako Elkanoren Lehorreratzeari norabide beltza eman dio deketibeen istorio batekin, '72 ordu' bere lehen eleberrian. Heriotza mehatxu batek festa giroa irauli egiten duenean Aitor eta Idoiak ikerketa bat abiatzen dute, idazlearen jaioterriaren hainbat txokotan barrena.

Lehorreratzea Juan Sebastian Elkano esploratzaileak munduari bira amaitu zuela oroitzeko Getarian ospatzen den jai da. Aurtengoa lehorreratzearen 500. urteurrena eta ekitaldiaren lehen mendeurrena izango da. Lau urtean behin antolatzen da eta oraingoan irailaren 6an ospatuko da, eleberriaren istorioa kokatzen den egun berean, alegia.

Idazleak berak liburuaren aurkezpenean azaldu duenez, eleberriaren sormen prozesua «jolas baten gisa hasi zen», duela hiru urte. Bi elementuk abiatu zuten lana, Iribarrek azaldu duenez. Alde batetik, Juan Sebastian Elkano nazioartean ezaguna ez zela konturatu zen, eta ingelesa izango balitz, «ziurrenik» Hollywood-en film bat egingo zukeela iruditu zitzaion.

Premisa horretatik abiatuta sortu du Iribarrek kontaketa, Elkano antzeztan duen aktorearen inguruan eraikitzen dena. 72 orduko denbora tarte horren barruan erlojuak atzeraka doan bitartean, bi ikerketa daude. Ertzaintzaren lan «ofiziala», batetik, eta Aitor Letamendia ikerlari pribatua eta Idoia Urdaneta Udaleko zinegotziarena, bestetik.

Letamendia eta Urdaneta lagunak dira lehendik. Detektibea Getarian dago Udalak enkargu bat agindu diolako: jendaurrean erakutsiko duten Elkanoren egunerokoa zaintzea. Baina bat-batean, ezustean, hilketa mehatxu batek sorturiko zalapartaren erdian aurkituko dute beren burua bi lagunek.

Kepa Iribar Elizegi kazetaria da ogibidez eta Euskadi Irratiko 'Katedra' eta 'Hiru Erregeen Mahaia' kirol irratsaioetan aritzen da gaur egun. Inazio Mujika Erein argitaletzeko editorearen iritziz, idazleak ohikoa duen ahozkotasanunaren eragina nabari daiteke '72 ordu' eleberrian.

Idazleak «gustura eta patxadaz» aritu dela aitortu du eta idazlana amaitzerakoan «aspertuta, nekatuta edo gogaituta» ez zegoela ziurtatu du. Hortaz, ez du etorkizunean beste eleberri bat argitaratzeko aukera baztertzeko, emaitzarekin «pozik» baitago.

Mujikak Getariak eleberrian daukan garrantzia nabarmendu du. Izan ere, bere iritziz, «bertakoek bakarrik dakizkiten gauzak» txertatu ditu Iribarrek. «Liburua irakurtzerakoan eleberriaren istorioaz gain beste liburu bat irakurtzeko aukera izango du jendeak: bere herriaren maitale batek idatzitakoa», baieztatu du Mujikak.

Azalak ere kutsu sinbolikoa dauka. Lehorreratzearen argazki bat behar zuenez, Getariako Udalerak eta 'Artzape' aldiakariak jo zuen Kepa Iribarrek, aurkezpenean azaldu duenaren arabera. Hauek utzitako bilduma batetik denboraren joana irudikatzen duen kandela bat aukeratu zuen azkenean.

PUBLICIDAD



PUBLICIDAD



PUBLICIDAD




Lo +



31 urte eta erdi preso eman ondoren aske da Xistor Haranburu




«Bombas de ETA», «por Vitoria para todo»... Adanero carga contra el parón del TAV



Javier Negre insulta a Mertxe Aizpurua en el Congreso por negarse a responder a los ultras



Haizea Beruete bertsolari iruindarra hil da



Cubanos de Miami aplastan discos de Laura Pausini con una apisonadora

Te puede interesar



EUSKAL HERRIA

«Con apuestas fuera de los bares proteges a menores y personas con discapacidad»

Aritz Intxusta




ECONOMÍA

La crisis alimentaria mundial depende de la guerra en Ucrania

Isidro Eñaola



MUNDO



SALUD

Mafia eta Estatu italiarra gerran zirenean

Alessandro Ruta

¿Cómo mejorar la relación entre la comida y nuestro cuerpo?

Xandra Romero



Cultura

Vídeos

Galerías

Audios

Esquelas

Tienda

El Tiempo

Info

Euskal Herria
Economía
Mundo
Naiz+
Bilbotarra
Donostiarra
Gasteiztarra
Iruindarra

Deportes

Fútbol
Baloncesto
Balonmano
Pelota
Ciclismo
Remo
Motor
Herri Kirolak
Rugby

Opinión

Editoriales
Zugazart
Artículos
Cartas al director
Blogs de opinión

Recibe nuestra newsletter

Te enviaremos noticias únicamente para que las conozcas. Sin spam.

irratia EN DIRECTO

[Quiénes somos](#) [Contacto](#) [Aviso legal](#) [Publicidad](#) [RSS](#)



[IRRATIA](#) [BIDAIARI](#) [GARA](#) [7K](#) [GAUR8](#) [MEDIABASK](#) [KAZETA](#) [11TB](#)